

**ESPARRU-AKORDIOA HEZKUNTZA-EREMUTIK LAN-
EREMURAKO TRANTSIZIOA SUSTATZEKO
ACUERDO MARCO PARA FACILITAR LA TRANSICIÓN DEL
MUNDO EDUCATIVO AL LABORAL Y DE EMPRENDIMIENTO**

2017-07-19 Vitoria-Gasteiz 19-07-2017

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, Unibertsitateko errektoreak, Lanbide Heziketaren Elkartetako presidentek eta sailburuordeok, eta etorri zareten ordezkariok, egun on.

Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusietako bat enplegua da. Gure Programan dago eta legealdian zehar langabezia %10etik jaisteko konpromisoa hartu dugu.

Helburu horren barruan, gazteak lan-munduan txertatzea lehentasun bat da, denon artean elkarlanaren bidez lortu behar duguna. Halaxe da Europako Batzordearentzat eta, helburu hori, Jean Claude Junckerren hamar lehentasunen artean dago baita ere.

Empresas, profesionales, responsables académicos e institucionales de todo el mundo destacan que vivimos importantes cambios económicos, con una creciente automatización de los procesos productivos, novedosas formas de organización y gestión, la aparición de nuevos campos profesionales y la transformación tecnológica y del trabajo en equipo.

Nuestro papel es facilitar una correcta y apropiada transición del mundo educativo al laboral y al emprendimiento empresarial. El acceso de la juventud al trabajo es una prioridad de primer orden. Para ello hemos definido la Estrategia Vasca de Empleo 2020; el Programa Marco de Empleo y Reactivación Económica; y el Plan Estratégico de Empleo.

Nuestro objetivo es ayudar a acercar a las personas jóvenes que desean acceder a su primer puesto de trabajo a las empresas. Empresas que quieren contar con personal joven bien preparado para su sistema productivo. Así, el programa de Garantía Juvenil de la Unión Europea establece como prioridad

que la juventud desarrolle un periodo de formación en las empresas como continuidad a la titulación obtenida.

Aukera hori gure gazteengana hel dadin, beharrezkoa da pizgarri bat ematea. Argi dugu bi aldeei, ikasleei zein enpresei, aldeko baldintzak eskaini behar zaizkiela. Horretarako “Hezkuntzatik lanerako trantsizioa” eta “Gazteen ekintzailtza” izeneko programak diseinatu ditugu. Guztira 4 milioi euro inbertituko ditugu urtero.

Alde batetik, “Hezkuntzatik lanerako trantsizioa” izeneko programa abian jarriko dugu, beken bidez. Programa hau Lanbide-heziketan eta Unibertsitateetan gradu baten azken ikasturtea egiten ari diren ikasleei edo lanbide-heziketako titulu bat dutenei zuzenduta dago. Guztira, 3 milioi euro bideratuko dira urtero programa honetara.

Bestetik, “Gazteen ekintzailtza” sustatzeko programaren helburua, unibertsitateetako eta lanbide-heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea indartzea da. Horretarako, esparru horietan sortzen diren enpresa-ekimenei laguntza emango zaie; enplegu berriak sor ditzaketen autonomo eta mikroenpresa berrien ekimenak bultzatuz.

Lanbide Heziketako ikastetxeekin eta unibertsitateekin elkarlanean, hitzarmenak sinatuko dira, bertan sortutako enpresa-tailerrak garatzeko eta enpresa berriak sustatzeko. Ikasleek sortutako 150 proiekturi zuzenduta dago eta, guztira, milioi bat euro bideratuko da urtero.

Nuestro objetivo es ofrecer un incentivo a estudiantes y empresas, unas condiciones favorables dentro de las necesidades reales del tejido productivo, con una intervención personalizada y una garantía de inserción laboral. Para ello hemos diseñado dos nuevos Programas: “Transición del mundo educativo al laboral” y “Emprendimiento juvenil”, con una inversión de 4 millones de euros anuales.

El Programa “Transición del mundo educativo al laboral” funciona mediante becas y está dirigido a 1.500 estudiantes de Formación Profesional y de la Universidad. Este colectivo podrá percibir, como compensación económica, 1.500 euros a la finalización del proceso de tres meses y su Centro docente 500 euros por alumna o alumno para gastos de gestión o seguros. El Gobierno Vasco va a invertir 3 millones de euros anuales en este objetivo.

El segundo Programa dedicado al fomento del “Emprendimiento juvenil” tiene como objetivo promover la cultura emprendedora. Este Programa ofrece apoyo

a las iniciativas empresariales, apoyando a las personas autónomas y microempresas que puedan generar nuevos empleos. El Programa está dirigido a 150 proyectos creados por alumnas y alumnos, 75 en Formación Profesional y 75 en las Universidades. El importe que recibirá el Centro o la entidad designada será de 6.600 euros por proyecto. En total se invertirán un millón de euros anuales.

Akordio honen bidez, ikasketa-bide berriak ireki ditugu, arazoak gainditzeko, proiektuei ekiteko eta etorkizunerako bidea prestatzeko.

Gaur sinatuko dugun hitzarmen honek trebakuntza handiagoa izatea bermatzen du, enpresetan, unibertsitateen eta lanbide-heziketako ikastetxeen eskutik egingo den prestakuntzari esker. Hitzarmen honen bidez auzolanaren balioa erakusten dugu.

Al firmar este Acuerdo compartimos el objetivo de lograr una recuperación económica sostenible. Para ello es esencial potenciar el capital humano y su empleabilidad mediante una mejora de las capacidades y conocimientos. También mediante el impulso del emprendimiento que caracteriza la cultura empresarial.

Las empresas vascas precisan jóvenes profesionales con una buena preparación técnica, que acrediten habilidades y conocimientos relacionados con la iniciativa, la responsabilidad, el compromiso, la autonomía y el trabajo en equipo.

Este Acuerdo garantiza una mayor capacitación de la juventud gracias a su formación final en empresas, de la mano de las Universidades y de los Centros de Formación Profesional.

Empresas, Administración y Centros educativos damos un nuevo paso en pos del “bien común” que representa facilitar la inserción laboral de la juventud.

Eskerrik asko.